

Tokiko Agenda 21 Batzordearen 2014ko ekainak 12ko bileraren ondorio nagusien sintesia

- **Honako puntuen berri eman da:** 1.1. Faktura elektrikoa optimizatzeko proiektuaren egoera; 1.2. Eskolako Agenda 21; 1.3. EEE laguntzen aurreikuspena; 1.4. Udalsarea 21en Batzorde Exekutiboa; 1.5. Etxeko eta Merkataritzako Hondakinei buruzko Udal Ordenantza Eredua; 1.6. Txikizkako saltokien eraginkortasun energetikoari buruzko azterketa eta hobekuntza; 1.7. Ekitalde berria: Salgaiak modu eraginkor eta iraunkorrean banatzea hirian; 1.8. Hitzarmen eta kuoten berrikuspena; 1.9. Ikaslea praktiketari; 1.10. Tokiko Agenda 21aren Jarraipen Plana.
- **Udalekin egindako bilera-errondaren ondorioak:** zenbait emaitza partekatu dira: Tokiko Agenda 21 ekimenaren Jarraipen Planari buruzko bilerenak, 5. edukiontzia eta konpostatzearen bidez zati organikoa jasotzeko zerbitzuarenak, eta kontratuen eskualde-multzokatzearen lehentasunarenak. 5. edukiontzia batzeko zerbitzurako eta hondakinak batzeko kontratuak multzokatzeko laguntza teknikorako 2014ko bigarren kuota planteatu da. Uztaileko bileran 2. kuota hori onartuko da, bai eta, lehentasunen arabera, eskualde mailan multzokatu beharreko zerbitzuen kontratuei buruzko bide-orria ere.
- **5. edukiontzia ezarpena:** 5. edukiontzia eta autokonpostagailuak ezartzeko diru-laguntza eskatu ostean, hauek dira hurrengo urratsak: Informazio Plana diseinatu eta betearazteko lehiaketa publikoa; Materialak erosteko lehiaketa publikoa; Hondakin organikoa jasotzeko lehiaketa publikoa; Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabalek zati organikoa bil dezan Udalen kudeaketa-agindua.
- **5. edukiontzia buruzko komunikazio Planerako lehiaketa:** aurrekontua 60.000 eurokoa da, BEZ barne. Aurreikuspenaren arabera, lizitazioa ekainean argitaratuko da, eta plana irailetik hasi eta 2015eko lehen hiruhilekora arte zabalduko da.
- **Abandonatutako animaliak batzeko zerbitzuaren lehiaketa:** Eudelen orriaren eredia hartu da erreferentzia gisa, eta aldaketak eta hobekuntzak Bulegoari helaraziko zaizkio.
- **Biodibertsitateari buruzko 2014ko proiektua:** Laguntza teknikoaren kontratazioaren berri eman da: Suspergintza Elkartea, 20.721,25 €-ko zenbatekoarekin; eta Equinoccio Natura, 15.578,75 €-ko zenbatekoarekin. Hauxe da ekintzen irismena: erriberako zuhaixka eta zuhaitzen espezie autoktonoak landatu eta mantentzeko ekintzak, udalerrri bakoitzean aukeratutako inguru hondatuetan; ibai eta hezegune sentikorretako ur-bazterrean dauden landare-espezie exotiko inbaditzaileak antzeman eta eskuz eraztea; 2 urmael artifizial instalatzea, mehatxatutako anfibio eta narrastien presentzia sendotzeko; Nerbioi-Ibaizabal eskualdeko ibai eta hezeguneetan bizi diren eta mehatxatuta dauden fauna-espeziei buruzko 3 sentsibilizazio-kanpaina egitea. Aurreikusitako egutegia 2014ko uztailetik 2015eko martxora bitartekoa da.



- **Extranetaren aurkezpena:** aplikazio informatiko berriaren azalpenezko ibilbide bisuala. Erabiltzaile bakoitzaren gako pertsonalak eta erabilerarako gidaliburua posta elektronikoz bidaliko dira.
- **Batzordearen hurrengo bilera:** uztailak 12 asteazkena, 9:00etatik 11:00ak arte.